

Aurrematrikulazio kanpaina martxan, datorren astetik

Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra arteko epea jarri du, eta Nafarroako Gobernuak otsailaren 3tik 7ra artekoa.

URUMEA AURREMATRIKULAZIOA

Datorren astean hasiko da Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen aurrematrikulazio kanpaina, 2020-2021 ikasturterako. Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra arteko epea jarri du aurrematrikulazio egiteko, eta Nafarroako Gobernuak otsailaren 3tik 7ra artekoa.

Beraz, Astigarraga, Hernani eta Ereñotzuko ikastetxeak aukeratu dituzten ikasleak izango dira aurrematrikulazioak egiten aurrenekoak. Goizuetar eta aranoarrek Goizuetako Xal- to eskola dute gertuen, eta bertan aurrematrikulazioa egiteko epea astebete beranduago hasiko da.

EAEko eskaera bakarrean, 12 ikastetxera arte aukeran

Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra arteko epea jarri du aurrematrikulazioak egiteko, eta bi modu izango dira eskaerak egiteko: internet bidezkoa, eta aurrez aurrekoa. Internet bidez eskaerak egiteko epea otsailaren 6an bukatuko da, eta datuak www.euskadi.eus/hezkuntza webgunean bete behar dira. Aurrez aurreko eskaerak, berriz, otsailaren 7ra arte egin ahal izango dira lehenengo aukerakoa den ikastetxeko idazkaritzan, hark zehaztutako ordutegian.

Eskaera bakarria aurkeztu beharko da ikasle bakoitzeko, gehiago aurkeztuz gero bakar bat ere ez baita kontuan hartuko. Horrek ez du esan nahi, ordea, ikastetxe bakarria aukeratu behar denik. Hain zuzen, eskaera bakarrean 12 ikastetxera

arte aukeratu daitezke, bakoitza dagokion hizkuntza eredukoa izanda. Garrantzitsua da ikastetxe bat baino gehiago aukeratzeko lehenetsun araberako ordenatzea, ikasleari ikastetxe bat esleitzeko orden horren arabera ahal den onena esleituko baitaio.

Eskaerarekin batera, dokumentazioa

Aurrematrikulaziorako epe honen barruan, eskaerak egiteaz gain, hainbat dokumentazio ere aurkeztu behar da, derrigorrez. Besteak beste, ondorengoak: ikaslearen familia-liburuko fotokopia edo dokumentu balio-kidea; familia liburuaren aita/amaren orriaren fotokopia edo lege-tutorea izatearen ziurtagiria; ikaslea familia-harreran dagoen kasuetan, dagokion ziurtagiri ofiziala; aita, ama edo tutorearen NAN edo AITa; familia-eroldaren ziurtagiria; premia berezietako ikaslea izanez gero, hezkuntza Premia Berezieta galde-sorta; EAetik kanpo ikasten duen ikaslearen kasuan eta Lehen Hezkuntzan edo DBHn onartzeko eskatzen badu; egindako ikasketen ziurtagiria, gaur egun egindako maila zehaztuta; eta familia banadua edo dibortziatua izatekotan, Hezkuntza Sailak ezarritako berezko protokoloa. Azken kasu honetan, gainera, bi alderdien arteko adostasuna behar da eskaerak egiteko, epai judizial batek baimena gurasoetako bati bakarrik ematen dion kasuetan izan ezik.

Bestelako dokumentazioari dagokionez, kasu bakoitzean eskatzen den dokumentazioa entregatu beharko da, baremoko puntuak lortzeko; bizilekuaren



Astelehenean irekiko da aurrematrikulazio epea, EAEn; Nafarroan, otsailaren 3tik 7ra egin beharko da.

araberako eremu-puntuetarako, familia-errentagatiko puntuetarako; familia ugariko puntuetarako...

Hau guztia ere aurrematrikulazio epearen barruan aurkeztu beharko da, bestela ez baita kontuan hartuko, eta eskaera osatu gabe geratuko baita.

Bi urteko geletarako eskaerak; institurako ez

Datorren ikasturtean Haur Hezkuntzako 2 urtekoen maila eta DBHko 4garren maila arteko ikasleei zuzendutako aurrematrikulazio kanpaina izango da hau; 2 eta 16 urte arteko ikasleei zuzendua, hain zuzen. Hala ere, bi urteko edo hortik gorako mailan matrikulatuta dauden ikasleek eta hizkuntza-eredu berean jarraituko dutenek ez dute eskaerarik aurkeztu behar, eta ikasle horren jarraipena bermatuta egongo da, ikastetxe horretan hurrengo maila ematen bada.

Era berean, DBH egiteko aukerarik ez dagoen ikastetxe batean Lehen Hezkuntzako

Urtebeteko gelan dauden ikasleek bi urteko gelan jarraitzeko ere eskaera aurkeztu behar dute kanpaina honetan, nahiz eta ikastetxe berean jarraitzeko asmoa izan.

6garren maila egiten ari diren ikasleek ez dute eskaerarik aurkeztu behar atxikitako institutura, ibilbidekoa den horretara sartzeko, ez bada hizkuntza-eredua aldatu nahi dela edo atxikitutako institutuak bat baino gehiago direla eta bat aukeratu behar dela.

Bestalde, urtebeteko gelan dauden ikaslearen kasuan, bi urteko gelan jarraitzeko eskaera aurkeztu behar da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-sisteman bi urteko edo hortik gorako ikasleak sartzeko, eta beraz, urtebeteko mailan matrikulatuta egonda ere, bi urtekoen mailan sartzeko onarpen prozesuan parte hartu behar da, eta, beraz, eskaera egin.

Azken hauek plazarik gabe geratuko balira, aurrematrikulazio epea bukatuta plaza librean dauzkaten ikastetxeek datorren ikasturtea hasi arte jasotzen diren eskaerei erantzun- gongo diete.

Era berean, gaur egun ikastetxeren batean matrikulatuta ez dauden ikasleei ere Lurralde Ordezkaritzak plaza bat esleituko lieke ofizioz. Gerta daiteke, baita ere, familia bereko bi kide onarpen-prozesuaren ondorioz banaduta geratzea ere; hau da, batek onarpena lortzea eta besteak ez, edo biak onartuak izatea, baina ez zentro berean.

Erreklamazioak, martxoan
Kanpaina hasi besterik ez da egingo astelehenean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikastetxeei dagokienean. Aurrematrikulazio epea otsailaren 7an bukatu-

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, LIBERTATEA ETA IKASLEEN DUA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

CEPA Hernani HHI

Helduen hezkuntza

Urtarrillean MATRIKULA ZABALIK
2019/20 ikasturteko 2garren lauhilabetea

- DBH-ko TITULUA lortu
- Hizkuntzak: Ingelesa
- Zure ikasketak jarraitu
- Atzerritarrentzako gatzelera

Antziola 62, Hernani ☎ 943 33 53 18

INMAKULADA IKASTETXEA

MATRIKULA EPEA IREKITA

0-16 URTE

urtarrilaren 27tik
otsailaren 7ra

ELIZATXO Ikastola

Matrikula: urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

Non: Elizatxo 9 ☎ 943 55 72 24 (HH-LH)

Ordutegia: 09:00 - 12:30 eta 14:30 - 16:30

Bilera informatiboa: urtarrilak 28, 17:00etan Aniztasun gelan

www.elizatxoikastola.com

BAIKARA
Guztizko Nazioaren Federazioa

ko da, eta eskatzaileen zerrenda otsailaren 25ean argitaratuko da. Behin-behineko zerrendak, hala ere, martxoaren 17an argitaratuko dira.

Segidan, erreklamazioak egiteko epea edo eskaeran atzera egiteko epea irekiko da martxoaren 25era arte, eta behin-betiko zerrendak martxoaren 31n kaleratuko dira. Hauei gora jotzeko errekurtsioak jartzeko epea, berriz, apirilaren 30era artekoa izango da.

Bestalde, aipatutako Lurralde Ordezkariek esleitutako plaza zerrendak argitaratuko dira apirilaren 21ean, eta plaza hauei uko egiteko epea maiatzaren 5era artekoa izango da.

Azkenik itzarote-zerrenda egingo da, eta irailaren 18ra arte iraungo du.

Eskaerak ikastetxean, Nafarroan

Beranduago irekiko da Nafarroan aurrematrikulazioak egiteko epea. Otsailaren 3tik 7ra egin ahal izango dira, eta eskaerak lehenengo aukerakoa den ikastetxeko administrazioan entregatu beharko da.

Derrigorrez aurkeztu behar den dokumentu edo agiria izango da, batetik, eskabide orria; hiru urteko haurren kasuan, mota batekoa izango da, eta gainontzeko ikasle guztientzat, beste mota batekoa. Era berean, familia-liburuaren, pasaportearen edo jaiotza-agiriaren kopia bat ere entregatu beharko da, eta erroldatze-zurtagiria.

Horrez gain, bestelako dokumentu batzuk ere aurkeztu beharko dira baremoko pun-

tuazioak lortzeko: lanpostuaren ziurtagiria, desgaitasunaren ziurtagiria edo txartela, errenta-aitorpena... Kasuan kasukoa.

Erreklamazioak, martxoan baita ere

Behin eskaerak egiteko epea bukatzean, zozketa publikoa egingo da Hezkuntza Departamenduan otsailaren 14an, eguerdiko 13:00ean, eta lehenengo aukerako ikastetxeetan onartuak izan diren ikasleen behin-behineko zerrenda argitaratuko da martxoaren 2an.

Ondoren, behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira martxoaren 9 eta 10ean, 14:00ak arte. Hauek, lehenengo aukerakoa den ikastetxean aurkeztu beharko dira. Honen ondoren, onartutako ikasleen behin-betiko zerrenda martxoaren 12an argitaratuko da, eta onartu ez diren ikasleentzako ikastetxeak esleitzeko prozesua martxan jarriko du Departamentuak, martxoaren 13tik 24ra bitartean. Hiru urteko ikasle onartuen zerrenda ere martxoaren 24an argitaratuko da.

Ondoren, martxoaren 25etik 27rako tartean, epea irekiko da hiru urteko ikasleek matrikula egin dezaten, edo aukera hobetzea eskatu dezaten.

Gainontzeko ikasleek ekainaren 22tik 25erako tartea izango dute matrikula egiteko; bakoitzak, onartua izan den ikastetxean.

Zalantzak argitzeko, www.prematricula.navarra.es webgurea edo 948 012 012 telefonora jo daiteke. **K**



Gailurreraino
Idoia Telleria Maritxalar

Gabiltzan harriak

Ruper oñatiarrak "Dabilen Harria" diskoko biraren barne *Leerro zuzena non* kantuari hitzurre modura honako hitzok bota berak, eta iltzatuak geratu niri: "Nola jokatu zuzen okerra den mundu batean?"

URUMEA BABESTUTAKO EDUKIA

Iturola elkarlan sorgunera heldutako askok lan egiteko esparru baten bila genbiltzala iritsi ginen hona. Besterik ez. Bertan jakin izan genuen ekonomia eraldatzaileaz, ja-sangarritasunaz, zaintzaz eta

saretzeaz, besteak beste. Balio haiek gure enpresa egituraren txertatu genituen, gureak eginez, ez inposatzen zizkigutelako, baizik eta haietan sinesten genuelako. "Bizitza eta pertsonak erdigunean", nola ez sinestu?

Aitzitik, ekonomia soziala ardatz dugun enpresok irizpide kapitalista huts(al)ak dituztenekin elkar-bizi behar dugu. Merkatu bakarra guztiontzako. Gu ere lehiakorrak izan behar gara; epeak bete, prezioak estutu... eta horrek gure balioak nahi baina gehiagotan irensera eramaten gaitu: lanaldi luzeak, asteburuen zaugarritasuna... Eta berriro Ruperren

galdera airean.

Gabiltzan harriak gara gutako asko, harri ibiltariak, bizitzaren korronteak batetik bestera biraka eramana gaituena. Harri bat gauza gutxi da, baina milaka, milioika harriak presak, eraikinak eta mendikateak osatzen dituzte.

Mikel Aristregi

Ikusentzunezko lantegia.
www.mikelaristregi.com

Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Iturola.eus
Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAK BABESTUTAKO ATALA

Eziago Poligonoa, 21
Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus



Urtarrilaren 27 eta 28an, arratsaldeko 18:00etan, (Santa Barbara eraikinean)

DBHko ATE IREKIAK

Ikasbideak elkarrekin eraikiz



Matrikula epea: urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

www.hernanibhi.eus

santabarbara@hernanibhi.eus (1. eta 2. DBH)
institutua@hernanibhi.eus (3. eta 4. DBH)

943 89 95 11 (1. eta 2. DBH)
943 89 95 10 (3. eta 4. DBH)

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa



Toki arazorik ez dute izango 2 eta 16 urte arteko Urumea bailarako ikasleek, aurrematrikulazioan



Ereñotzun, adibidez, 5 ume errolatu ziren 2018an, eta Txirritan matrikulatzea espero du zuzendaritzak.

Gaur egun, 2.519 ikasle daude Hernanin, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2 urteko geletakoak barne. Astigarragan, berriz, 633, Haur eta Lehen Hezkuntzan. Eta Goizuetan, 73, DBHko 2garren mailara arte.

URUMEA AURREMatrikulazioa

Datozen bi asteetan izango da aukera 2020-2021 ikasturterako aurrematrikulazioak egiteko, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan; urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra EAEn, eta otsailaren 3tik 7ra Nafarroan.

Urumea bailaran ez dute toki arazorik izango 2 eta 16 urte arteko ikasleek.

Haur gutxixeago, Astigarraga

Egungo datuei erreparatuta, Astigarragako Herri Eskolan nahikoa toki izango da datorren ikasturtean, maila guztietan. Ikasturte honetan, guztira, 633 ikasle daude bertan; 229 Haur Hezkuntzan, eta 334, Lehen Hezkuntzan.

2018an 85 haur jaio ziren herrian, eta beraz, datorren ikasturtean bi urtekoen gelan hasteko arazorik ez dute izango. Izan ere, gaur egun 90 ikasle badira maila horretan. Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gelan, berriz, 78 ikasle daude egun; 4 urtekoen, 67; eta 5 urtekoen, 64.

Lehen Hezkuntzan, bestalde, 1go mailatik 6garrenera, hurrenez hurren, ikasle kopuru hau dago: 62, 68, 53, 61, 47 eta 43. Gauzak horrela, toki arazorik ez dela izango aurreratu dute zuzendaritzatik.

Hernani eta Ereñotzun, 2.519 ikasle

Toki arazorik ez da espero, Hernani eta Ereñotzun ere. Hernanin bertan, hiru ikastetxe publiko daude, Haur eta Lehen Hezkuntzarako; Elizatxo, Langile eta Urumea. DBH egiteko, berriz, Hernani BHI institutua daukate aukeran; publikoa baita ere. Eta ikastetxe kontzertatua ere badago, Inmakulada, Haur Hezkuntzatik DBHra arteko eskaintza daukana. Ereñotzuko Txirrita ikastetxean, bestalde, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 6garren mailara arte ikasteko aukera dago.

Ikastetxe hauen guztien datuak kontuan hartuta, egun martxan dagoen ikasturtean 2.519 ikasle daude. Bi urtekoen gelan 120 haur daude; horietako 3 Ereñotzuko Txirrita ikastetxean. Datorren ikasturtean 163 izatera irtsi daitezke, 2018ko errola datuei erreparatuta. Dena den, Hernaniko Udaletik azaldu dute «errola datuak izugarri aldatzen» direla; «orain dela bi aste 163 haur zeuden 2018koak, matrikulazio kanpainan; aste honetan, 5 gutxiago, eta agian, berriak ere etorri dira». Hori horrela, bi urtekoen geletan plaza arazorik egotea ez da espero. «Lehengor urtetik ez da diferentzia handirik egongo; zerbait gehixeago».

Ereñotzun, bestalde, 2018ko errolaren arabera, 5 haur jaio ziren bertan, eta Txirrita ikastetxeeko zuzendaritzatik adierazi dute pozik hartuko lituzketela; «ea zortea dugun eta hemen gelditzen diren!». Hiru urtekoen gelan, egun, 4 haur daukate; 4 urtekoen, 7; 5 urtekoen, 10; LH1en, 5; LH2n, 8; LH3n, 10; LH4n, 12; LH 5en, 8; eta LH6n, 6.

Hernaniko gainontzeko ikastetxeetan, Haur Hezkuntzan denera 593 haur daude; horietatik 35, Inmakuladan, 2 eta 5 urte artekoen gelan. Lehen Hezkuntzan, berriz, 1.129; horietatik 106, Inmakuladan. Eta DBH egiten, 677 gaztetxo; horietatik 86, Inmakuladan.

Ikasle gehiago aurten, Goizuetako Xalto eskolan Nafarroan, bestalde, berandua izango dute aukera ikasleek, aurrematrikulazioak egiteko; otsailaren 3tik 7ra arteko epea izango da, hain zuzen.

Goizuetar eta aranoarrek, Goizuetako Xalto eskola dute aukera gertukoena. Bertan ere, ez dago toki faltarik, aurtengo ikasturtean iazkoan baino ikasle batzuk gehiago egonagatik ere; 3 gehiago dira aurten. Hain zuzen, 3 urtekoen gelan 9 ikasle dira; 4 urtekoen, 7; 5 urtekoen, 3; LH1en, 9; LH2n, 7; LH3n, 6; LH4n, 8; LH5en, 7; LH6n, 7; DBHko aurreneko mailan, 8; eta bigarrenen, 2. Denera, 73 dira, eta iazko ikasturtean 70 ziren, goizuetar eta aranoarrek kontuan hartuta.

Beraz, tokia izango dute ikasle berriek ere, gelako plaza kopurua 25 artekoa izaten baita. **K**

TXIRRITA
Ikastetxea

baikara

TXIRRITA - EREÑOTZU

ATE IREKIEN JARDUNALDIA:
Urtarrilaren 27an 9:00 - 12:30 / urtarrilaren 30ean 9:30 - 16:15

MATRIKULA:
Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

TELEFONOA: **943 55 42 56** E-MAILA: **012086aa@hezkuntza.net**

2020/2021
ikasturterako

**Aurre-
matrikulazioa**

Urtarrilaren 28tik otsailaren 7ra

Ate irekiak urtarrilaren 22an 16:45ean

Argibide gehiago edo matrikula txanda hartzeko:
943551262

ASTIGARRAGA

ESKOLA

Santio Zeharra 4, Astigarraga

URUMEA IKASTOLA

Zatozte gu ezagutzera!

MATRIKULA 2020-2021
urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

ORDUTEGIA
09:00-12:15 eta 14:30-16:30

ATE IREKIAK
urtarrilak 27, 17:00etan

baikara

Larramendi kalea, 18 Hernani - Tlf: 943 55 04 72
 urumeazuzendaritza@urumealhi.org - www.urumealhi.hezkuntza.net

2020/21 ikasturtea

HH · LH · DBH

Hernaniko ikastetxeetan aukera zabala duzu



herrian**bizi**
herrian**ikasi**



Hurbildu zaituz Hernaniko ikastetxeetara
Ezagutu eta behar duzun informazioa eskatu

Elizatzko Ikastola



Inmakulada Ikastetxea



Langile Ikastola



Txirrita Ikastetxea



Urumea Ikastola



Hernani Institutua



Zer eskaintzen du Hernanik?

Kalitatezko irakaskuntza

- Komunikazio-hizkuntza EUSKARA duen heziketa eleanitza.
- Parte hartzailea: guraso, irakasle eta ikasleen arteko elkarlana bultzatzen duena.
- Herrian txertatua: herriko kultur jardueretan parte hartzen duena.
- Aniztasunari arreta jartzen diona eta komunitate osoaren inklusioa helburu duena.
- Herriko eskolen arteko elkarlana bultzatzen duena.
- Hezkidetzan oinarritua.
- Ingurumena zaintzeaz arduratzen dena.
- Kalitatezko programak eta zerbitzuak eskaintzen dituena, eskolorduetan eta eskolaz kanpo: tratu onen tailerrak, ahozotasuna lantzeko programak, sexu-heziketa, musikaz gozatzeko saioak, gurasoentzako tailerrak, etorri berrientzako errefortzuak, eskola-kirola, jangela zerbitzua...

Abantaila asko

- Iraunkorragoa da: ikastetxeak gertu daudenez, oinez edo bizikletaz joateko aukera duzu.
- Seme-alaben heziketa hurbil-hurbiletik segitu dezakezu.
- Ikastetxearen egunerokotasunean parte zuzena har dezakezu.
- Seme-alabek herrian bertan lagunarte zabala izateko aukera dute.
- Herriko jarduerak eta zerbitzuak eskura dituzue: eskola-kirola, kultur jarduerak, kiroldegia, kultur etxea, musika-eskola...
- Aberasgarria da denontzat: Kalitatezko heziketa sustatzen duen herria altxorra osatzen ari da.

Haur Hezkuntza (HH)

Lehen Hezkuntza (LH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Gela Egonkorra

AURREMATRIKULATZEKO EPEA

urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra
(biak barne)

2-12 urte

Haur Hezkuntza (HH) eta Lehen Hezkuntza (LH)

> Elizatzko Ikastola

Elizatzko auzoa, 9

☎ 943 557 224

www.elizatzkoikastola.com

elizatzko@elizatzkoikastola.com

> Inmakulada Ikastetxea

Sandiusterri kalea, 4

☎ 943 550 233

www.lainmaculadahernani.com

idazkaritza@lainmaculadahernani.com

> Langile Ikastola

Karobieta auzoa, 37

☎ 943 555 423

www.langile.eus

laubidieta@langile.eus

> Txirrita Eskola

Ereñotzu bailara, z/g

☎ 943 554 256

www.eskolatxikiak.eus/eskolak/2/erenotzu

012086aa@hezkuntza.net

> Urumea Ikastola

Larramendi kalea, 18

☎ 943 550 472

www.urumealhi.hezkuntza.net

012653aa@hezkuntza.net

12-16 urte

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

> Hernani Institutua

Santa Barbara auzoa, 27

☎ 943 899 511

www.hernanibhi.eus

santabarbara@hernanibhi.eus

(Gela Egonkorra, 1. eta 2. maila)

☎ 943 899 510

institutua@hernanibhi.eus (3. eta 4. maila)

> Inmakulada Ikastetxea

Sandiusterri kalea, 4

☎ 943 550 233

www.lainmaculadahernani.com

idazkaritza@lainmaculadahernani.com

Hernaniko
ikastetxeak



herrian**bizi**
herrian**ikasi**